

## FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure mahai digitalaren funtsezko egileak geu izango gara, baina argi dago zenbait alorretan espezializatutako enpresa batzuen laguntza beharko dugula.

Hasieran, mahaia diseinatzeko Nyova enpresa diseinatzailearen laguntza izango dugu. Haien laguntzaz proiektuaren ideari itxura jartzea lortuko dugu haien diseinuekin. Guk nahi ditugun ezaugarriak aipatu beharko dizkiegu (lehen aipatuak izan direnak) eta haien hainbat proposamen egin ondoren gehien gustatzen zaiguna aukeratuko dugu.

Gure proiektua diseinu hutsetik fisikora eramateko, lehendabizi "Makinaria eurotec"ren laguntza izango dugu. Haiek izango dira gure proiektua egiteko behar dugun metala sortuko eta ahalbidetuko dutenak, eta metal horren bidez mahaia eta euskarriak egingo ditugu.

Gure proiektuak funtziona dezan elektronikan haritzen den enpresa baten laguntza behar dugu eta gure kasuan Electrosat 2000 izango da aukeratu dugun enpresa. Haiekin harremanetan jarriko gara eta gure mahai digitalak izango dituzten ezaugarriak zehaztuko ditugu. Haien lana izango da pantaila taktila zehaztea edo memoria kontuak argitzea, adibidez.

Gure beste bazkide bat Addimat izango da, teknologiaren inguruan lan egiten duen enpresa. Beraiekin lortuko dugu gure mahaia azken teknologiakoa izatea, bateriaren inguruan aholkuak emango dizkigute edo mahaia ahalik eta mehen izatea saiatuko dira.

Gainera, garraioataz arduratuko den enpresa, Seur izango da, gure produktua behar den momentuan eta behar den tokira eramateaz arduratuko dena.

Laburki esanda, gure proiektua modu egokian aurrera eramateko, enpresa hauen laguntza behar dugu. Hain zuzen, beraiek ingurune hauetan adituak dira eta gure ideia eraginkorra izan dadin lagunduko gaituzte. Gainera, enpresa gehienak enpresa txikiak dira, horrela horien bultzada eta haien negozioa handitzen lagunduko diegu. Izan ere, gaur egungo sisteman garrantzitsua iruditzen zaigu ahots ahula duten enpresei indarra ematea eta merkatuan bere lekua ematea enpresa erraldoien aurrean.